

## Genero perspektiba lantzen Gorputz Heziketa irakasgaien Kurtzebarri Eskolan: irudien bidezko begirada

**Tesiaren egilea:** Iñaki Arana Arrieta

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

**Saila/Institutua:** Psikodidaktika

**Doktorego-programa:** Psikodidaktika. Hezkuntzaren psikologia eta didaktika espezifikoak

**Jakintza-arloa:** Hezkuntza

**Tesi-zuzendaria:** Maria Teresa Vizcarra Morales eta Ainhoa Gómez Pintado

**Tesiaren laburpena:**

Tesiak neskek Lehen Hezkuntzan eskola-kirolean duten parte-hartze txikia aztertzen du eta errealitate horren atzean dauden arrazoiak ulertzea bilatzen du. Arrazoi gisa hainbat faktore identifikatzen dira, hala nola kirolean emakumeen erreferenterik eza, familiaren laguntza-babesa eta kirol-erakundeen eta antolakuntzen ikuspegi androzentrikoa.

Ikerketa abiatzeko, datu-bilketa bat egin zen «*proba pilotu*» gisa Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako 60 ikaslerekin, galdetegiak, argazki-bildumak eta foku-taldeak erabiliz. Datu-bilketa hori gerora ezarri nahi zen eskualdeko beste bost ikastetxetan, baina asmoa ez zen gauzatu.

Lortutako datuetatik abiatuta, erabaki zen tesia birbideratzea, eta ikasleak sentsibilizatzeko eta ahalduntzeko proposamen didaktiko bat diseinatzea ikasturte baterako eta hiru fasetan. Fase horietan ondoko lan hauek egin ziren: prentsako kirol-argazkien analisisa, erreferente positiboak zituzten filmen proiektzioak, eta posterren eta triptikoen bidez haien proposamenak eta aldarrikapenak hedatzea.

Proiektuaren amaieran, eta zabalkunde-lanean lortutako emaitzak ikusita, ondorioztatu zen ikasleek beren pentsamendu kritikoa nabarmen garatu zutela, eta aurrez zalantzan jarri gabeko aurreiritziak eta estereotipoak gainditu zituztela.